

1.GAIA: POLITIKA ZIENTZIAREN KONTZEPTUAK

Sarrera

Kontzeptua: pentsamendu objektu konkretu edo abstraktu bati buruz giza adimenak sortzen duen ideia orokor eta abstraktua. *Adb: zaldia kontzeptua abstraktua da, bakoitzak zaldiaren kontzeptua imajinatu egiten duelako / boterea abstraktua da, eta horren inguruan guk sortuko dugu ideia orokor bat.* Objektu eta subjektu baten arteko harremana kontzeptuaren bidez planteatzen dugu, eta hau da zientziaren muina.

Subjektu batek noa ezagut dezake aztertu nahi dudana objektua? Zientziari jarraiki. Honetarako hainbat metodo:

- Metodo enpirikoa (sinpleena da, eta ziur aski gezurra da) → subjektua obserbazioaren/ esperimazioaren bidez aztertzen ari den objektu hori ezagutzera hel daiteke. Subjektua eta objektua bereizita daudela ohartuko gara metodo honen bidez.
- Subjektua eta objektua lotuta daude, garai bateko bereizketa hori ez dago horren argi.

Aristotelesen garaian, politikari buruzko ikuspegi bat planteatzen da. Baina, politika zientziaren definizioa aldatuz badoa objektua ere aldatuz doa. Beraz, gizarteak politika ikusteko duen ikuspegia da aldatzen dena, fisikoki ez baitago objekturik. Objektua subjektuak sortua da.

Kontzeptuek bi irteera dauzkate (bi ulertzeko modu):

1. Denotazioa → kontzeptu horren bidez egin nahi dugun definizio objektiboa *Adb: ilunabarra; eguna eta gauaren arteko tartea*
2. Konnotazioa → guk kontzeptu bati txertatzen dizkiogun balioak dira, subjektiboak. *Adb: poema batean ilunabarrak beste zentzu bat izan dezake.*

Erlatibismoaren arazoa → zuk ezin duzu esan nahi duzuna nahi duzulako. Metodoak ebaluatu, espezializatu, findu... egiten dira. Nahi duzuna esaten baduzu ez sara objektibo izaten ari.

Politika zientziak →Gizarte batean ordena bat ezartzeko erabiltzen den jarduera berezi mota bat da politika zientzia. (Zientzia: kontrol bitarteko bat da, subjektuaren eta objektuaren artekoa)

Metodologia → zerbait aztertu ahal izateko ezartzen diren pausuak.

Metodoa da zientzia. Metodo zientifikoa elkarrizketa publiko bat da, non elkarrizketako parte hartzaileek ez duten kartarik ezkututzen. Agertzen duzuna da egiten duzuna

Politika Zientziaren sorrera eta garapena

Politika Zientziaren hastapenetan hainbat izen esanguratsu daude eredu gisara.

- Machiavelli (sekularizazioa): Italiako politikaria, filosofoa, musikaria, olerkaria eta idazlea zen, Pizkundeko pentsalari handienetakoa.

Batik bat teoria politikoengatik da ezaguna: boterea kudeatzen, errealismoa eta pragmatismo hotza nabarmendu zituen, gizakiaren ikuspegi ezkor batean oinarrituz. Errepublika ezin hobe lortzeko modua izan zuen gogoetagai. Printzea izeneko tratatuan ondu zuen bere ikuspegia, egun ere aipatua eta eztabaidatua. Bere

idazkiek aztarna utzi zuten hurrengo mendeetako politikari eta estatu-gizonetan; hari zor zaizkio 'maquiavelismo' hitz eta ikuspegi politiko-ideologikoa

Lehenengoa izan zen era sekularizatu batean hitz egin zuena.

Berak bazekien erregeen boterea ez zela erlijioaren nahietan oinarritzen. Politikaren azterketa era zientifiko batean planteatzen du, politikaren arauetan jainkoak ez du ezer esaten.

- David Hume (enpirista): Eskoziar filosofo, ekonomista eta historialaria izan zen. Enpirismoaren bultzatzailetzat otzen da, John Locke, George Berkeley eta beste batzuekin batera.

Natur zientzien ereduak gizarte zientzietako balio du

- Montesquieu (osotasuna): Ilustrazio garaiko kronista eta pentsalari politikoa izan zen. Ilustrazioaren mugimenduko filosofo eta saiakeragile garrantzitsuenetakoa. Ospetsua da berak egituratu zuelako botereen banaketaren teoria, gaur egun gobernu modernoetan inarrizotzat jotzen dena, eta mundu osoo konstituzio ugaritan ezarria.

Haren pentsamendua ilustrazio frantsesaren izpiritu kritikoaren korranteetan sartuta dago. Korrante horren ezaugarri nagusiak hauek dira: tolerantzia erlijioso, askatasunaren bilaketa eta zorientasunaren kontzeptu zibioa. Hala ere, berak ez zituen jarraitu abstrakzioa edota metodo deduktiboa bazterten zuen korrante horretako beste eragile batzuk. Horrela, konstituzio ingelesaren zabaltzailea eta botereen banaketaren teoriko izan da. Lockeren pentsamendutik hurbil zegoen, eta Persiar gutunak liburuan idatzitakoarekin, Saint-Simonen pentsamenduarengandik hurbil; baina, betiere, bazituen bere ezaugarriak eta berezko izaera.

ilustrazio garaikoa da.

Politika Zientzien ezaugarrietara ekarri gaituzten autoreak dira hauek.

Instituzionalizazioa (XIX. eta XX. mendeak)

Politika zientzia guztiak instituzionalizatu egin dira. Hala, politika zientzia errekonozitua izan da.

Politika zientziak bere hastapenetan arlo ezberdinetatik jasotako edukiak hartuko ditu. Hortaz, politika zientziak adar askotatik datoz.

Politika zientziaren hastapenetan iturburu analitikoak bilatuko ditugu. Bertan, zer analizatuko duen ageri da, eta bi iturburu nagusi izan ditu.

1. Tradizio anglosaxoiarra: boterearen azterketa emango da bertan. AEB, BH.
2. Tradizio europar kontinental: hauek, esttua aztertzeaz arduratuko dira. Alemania, Frantzia.

Metodologiak forma oso labur batean hiru metodo hauetan koka genitzake:

1. Normatibistak: Kantek dioen moduan existitzen denaren eta izan beharko lukeenaren arteko konparazioa egiten du. Hau da, normatibistek, izan beharko lukeenaren inguruan hitz egiten dute. Gizarte hobe bat sortzeko nora jo behar dugun adierazten dute. Honetarako gobernu formarik onena demokrazia litzateke.
2. Enpiristak: politika zientzian eta soziologian asko garatu dena. Bertan, sondeoak inkestak... egiten dira.

3. Kritizismoa: gatazkarekin lotuta dago; beraz, Marxismoaren ikuspegiak hemen sartuko lirateke. Hemen du lekua ikuspegi feministak. Batzuetan tarte honi konstruktibismoa esaten zaio. (batzuk konstruktibismoa esaten diote kritizismoari)

Hiruak dira baliagarriak politika zientzietan. Baldintza bakarra erabili beharra dago, aurkitutako informazio hori azaltzea da baldintza hori.

Politika-zientzia eta politika-teoria

Historikoki politika-teoria eta politika-filosofia bat etorri dira, Aristotelesek, Maquiavellik edota Rousseauk egiten zutena. Baina, gaur egin bereizi egin behar dira, arlo bati politika-teoria eta politika-filosofia.

Politika-teorian, azterketa batzuk egin ondoren ondorioak atera eta ondorio horiei teoria izena ematen zaie. *Adb: gehiengo sistema batean barruti bakoitzean eserleku bakarra dago jokoan, nor eseriko da bertan herrialdea ordezkatzeko? Bozka gehien lortu dituen pertsona. Hortaz, bozka gehien lortzen duten alderdiek dute bozka eskubidea, eta horiek, alderdi handiak dira, Zumarragaren kasuan nork irabaziko lituzke hauteskundeak? PSEEk.* Gaur egun, teoriak betetzen duen tokia gainerako teoriak betetzen dutena da.

Politika-filosofian, ez da inolako azterketarik egin, hemen emandako ondorioak frogatu gabeak dira, hipotesi hutsak.

Hausnarketa gai tradizionalak

Gobernari eta gobernatuen arteko harremanaren izaera eta oinarria. Guk geuk teoria batzuk izan beharra ditugu gobernarien aurrean. Baina, gobernari bakoitzak bere ideiak izango ditu.

Beharkizunaren izaera, zergatik obeditu beharra dugu gobernariak esaten duten.

Ezagutza politikoaren izaeraz ari garenean politikak zer metodo erabili beharra dituenaz ari gara.

Helburu politiko eta sozialaren hierarkia. Gizarte batean balore batzuk ditugu, eta zer izan beharra dugu berdintasuna ala askatasuna. Gai hauen artean hainbat etabaida daude.

Hausnarketarik garrantzitsuena politika beraren definizioa da, politika bera zer den jakitea.

Gaurko filosofia

Eztabaida guzti hauetatik jaso ditu politika zientziak gaun egun erabiltzen dituen kontzeptuak. Oso garrantzitsuak dira kontzeptu horiek. Egungo filodofiak aztertze n dituen gai garrantzitsuenak hnakoak dira: gobernu formaren onena, estatuaren eta beharkizunaren oinarria, politikaren izaera eta moralarekiko eta etikarekiko harremana, eta zientzien metodologia. Hauek dira politika zientzietan erabili beharreko harremanak.

Zergatik ez da politika-teoria eta bai politika-filosofia? Ikuspegi ezberdinetatik datozen hainbat teoria daude; baina, teoria batzuk argi dago egun ikuspegi filosofiko batetik etorritakoak direla.

Politikaren-filosofiak egun ez du harreman zuzenik politika Zientziekin: baina, filosofiarik gabeko politika zientzi tristea litzateke. Politikak historikoki kontzeptu berriak

sortu ditu. Horregatik, oso garrantzitsua da egun politika zientzian. *Adb: sistema demokratikoak balio batzuk beharko lituzke izan? Nolakoak?*

Politika zientzia bi motatako zientziazat jotzen da: erabilgarria eta eraginkorra.

Zientzia erabilgarria, daukagun hori erabil dezakegu, hau da, praktikan jar dezakegu

Zientzia eraginkorra, politika zientziei eragin egiten diete kanpoko zein barruko faktoreek. Politikan ez dute soilik politikariek eragiten, gizarteko edozeinek proposa ditzake proposamenak.

Politika zientzia eta politikaren filosofia:

- Osoko hausturarik ez (bien artean harremana dago)
- Aldaketak kontzeptu eta kategorია berriak eskatzen ditu.
- Etika eta balioak ezin baztertu.

Politika zientzia eta politikaren soziologia:

Gaur egun, politika zientziak eta soziologiak muga komunak dituzte; baina, talaia ezberdinetatik egiten dituzte. Soziologiaren talaia litzateke aldaketa soziodemografikoak izan ditzakeen aldaketak. Soziologiaren ikuspegitik jomuga politiko bat, eta politikaren ikuspegitik gure gizartean zer eragin izan ditzaketan.

Soziologiak bi ekarpen nagusi egin dizkio politika zientziari, hau da, bi tradizio ditu. Batetik, estratifikazio soziala, klase sozialak... (Marx), eta bestetik, antolaketa instituzionala (Weber).

Politikaren zientzia eta gizarte zientziak:

Gaur egun, gero eta espezializazio maila altuagoa eskatzen zaigu. Garai batean orokortasunaz (denaz) hitz egiten zuten. Eklektizismoa. Marx, Weber... Ondoren arlo horien bereizketa (1910-20) egingo da, eta jendea espezializatu egingo da. Gaur egun, berriz, berreraikuntza (2000) bati eman zaio hasiera. Politika Zientzia eta antropologia bereizi egiten dira: baina, oso garrantzitsua bi horien arteko harremana, bakoitzak bestearengandik informazioa hartzen duelako.

2.GAIA: ORDENA ETA BOTERE POLITIKOA

1. POLITIKA

1.1 Definizioarako proposamen bat

Politika zergatik eta zertarako?

Gizartean diren gatazkak kudeatzea, gatazkak gizarte ezberdintasuna eta desoreka soziala dagoelako sortzen dira bai maila ekonomikoan, generoan, erlijioan, etnietan eta beste hainbat gaitan. Gatazka hauek konpondu ahal izateko errekurtsoetara joko dugu. Gatazka hauen kudeaketak gizarte ordena eratzea dakar, eta eraketa hau erabaki publikoak hartuz egingo genuke. Hauek bete ezean zigor bat jasango genuke (zuzenbidea).

Politika zientzia gainontzeko zientziak bezala zientzia konkretu bat da.

Politikak gehien iraun zuen herrialdeetan zuzenbide estatua (era jakin batera jokatzen duen estatua) eratzea zuten helburu absolutoarean aurka. Baina politika ez da absolutoarean aurka egiteko ekintza bakarra. Politika instituzioarekin erabat lotuta dago.

Zenbait definizio klasiko:

-*Politikak NORR, ZERK, NOIZ eta NOLA lortzen duenaz jarduten du.* (Lasswell): definizio honetan botereaz hitz egiten du.

-*Politika lagunen eta etsaien arteko harremanaren alorra da.* (Schmitt): zuzenbide estatuari egiten dio erreferentzia.


-*Def. (Weber):* subiranotasun lurralde batengan eta bertako biztanleriarengan du eragina. Obeditzen ez bada hurrengo pausua indarkeria.

1.2 Sistema politikoa, politikaren dimentsioak

Politikaren hiru dimentsioak eta politika sistema kontzeptua

Sistema politikoaren kontzeptuek ekonomia eta politikarekin dute zerikusia.

Sistema politikoaren hiru dimentsioak:



Politika legearen legitimitatearen arteko lotura egiten duena da. Gaur egun politikak legearen eta teknikaren kudeaketara garamatza. Status quoaren mantentze bat egiten du.

Politikaren autonomia erlatiboa: politika ez da kulturatik independentea, politikak badu bere esparrua eta esparru hori aldatuz doa. Politikak egun oso autonomia maila txikia du.

Honako prozesu hau testuinguru ezberdinetan ematen da. Hainbat gatazkatan; ekonomiko, erlijioso, kultural, nazioarteko eta generokotan.

-Honek politikaren azalpenari *ordena* logikoa eman

-Politik gatazkaren eta tentsioaren ondorioa

-Testuingurua eta politikaren arteko harremana

-Izaera dinamikoa dakarkio

-Edozein garaitako politika egiturari aplikatu dakieke

Erabilpenak

2. GIZARTE ORDENA ETA ORDENA POLITIKOA

2.1 Politika eta gizartea

Historiako une ezberdinetan hainbat erataria ulertu da politika. ARISTOTELESen politikaren arabera politikak bere gain hartu beharko lituzkeen gaiak. Gizarte zibila etxearen kudeaketari deritza. Beste hainbat gaiz ere hitz egiten du. Garai honetan Aristotelesentzat dena zen politika; dena erabaki politikoen menpekota zen.

Zoon politikon (gizaki politikoa); hiritarra. Hiritarrek polisaren gobernuan parte hartu zuten, eta egun egoera aldatu da. Greziarren ustez gizartea fenomeno politikoa da.

POLISA

GIZARTEA=POLITIKA

MURRIZKETAK

1.Kristautasuna: dagoeneko erlijioa ez dago botere politikoen menpe

2.Kapitalismoaren sorrera: merkatuan botere publikorik ez du Gizarteak

2.2 Gizarte ordena

1. Ordena indarkeriaren emaitza da. Maquiavelli, Hobbes, Marx, Freud,...
2. Ordena adostasunaren emaitza da. Ordena dago konsensua dagoelako. Parsons: konsensua dagoelako dago ordena.
3. Ordena interes bat etortzearen edo interes arteko lehiaren emaitza da. Proudon, Kropotkin, Adam Smith,...
4. Ordena dago denen interesak bat etortzean bestela ezinezkoa da.

2.3 Politikaren autonomia erlatiboa (autonomia =/ independentzia)

Esparru politikoak badu autonomia maila bat bere funtzioak betetzeko, eta autonomiak garai historikoaren arabera dimentsio ezberdinak ditu.

Egungo politikaren autonomia maila baxua da. Ekonomiak kendu baitio autonomia maila hori.

Garai hartan, estatuak BPGaren %65a zeukan Alemanian. Estatu eragile politiko hori eragile ekonomiko handiena. Erabaki politikoek erabaki ekonomikoetan eragingo dute. Erabaki politikoak besteen menpekoak dira.

Arrazoi historikoen ondorioz ekonomiaren arrazoi historikoa aldatuz doa, baita politikoa ere.


Politikak bere autonomia ematen dioten fenomenoak:

-Ordezkaritza: hauteskundeak; ordezkariak alderdiek eginiko erreklamendutik sortua. Politika ezin baztertu.

-Erakundetzea: erakunde politikoek euren inguruan erakunde osatzen dituzte.

-Profesionaltzea

3. GIZARTE ZIBILA



BOBBIO (autorea)

Norberto Bobbio ([Turin, 1909ko urriaren 18a](#) - *ibidem.*, [2004ko urtarrilaren 9a](#)) *italiar filosofo* eta *politologo* izan zen. *Sozialismo liberalaren* sortzaileetako bat, *XX. mendeko* filosoforik jarraituenetariko bat izan zen.

(https://eu.wikipedia.org/wiki/Norberto_Bobbio)

1. Gatazken alorra da, Estatuak konponbidea eman behar dute.
2. Eskakerak sortzen direneko esparrua eta sistemak erantzuna eman behar die.
3. Indar sozialen antolaketarako eta mobilizaziorako eremua. Hauen arabera erantzuna demokratikoagoa edo politikoagoa izango da.

IKUSPEGI LIBERALA

Gizarte zibila pribatizazioaren estatua.

Gizarte zibila =/ estatua. Erakunde publikoetan ez du inolako eskuartzerik. Erakunde pribatuak dira merkatu hori babestu behar dutenak.

GRAMSCI


Antonio Gramsci *Ales, Sardinia, 1891ko urtarrilaren 22a - Erroma, 1937ko apirilaren 27a* italiar politikaria eta pentsalaria izan zen. *Alderdi Sozialistakoa* izan zen, harik eta Alderdiaren ezkerraldea bereizi egin zen arte: *Alderdi Komunista* (1921). Bera izan zen sortzaileetako bat.

(https://eu.wikipedia.org/wiki/Antonio_Gramsci)


Italiako alderdi komunistako sortzaileetako bat, Mussoliniren garaian hil zena.

- Ikuspegi marxista heterodoxoa (neurri batean dena konektatuta dago)
- Gainegituraren bigarren unea
- Hegemonia funtzioa, egoeraren legitimazioa, harreman ideologiko kulturalen funtzioa.

Marxismo ortodoxoa



Marxismo heterodoxoa



Politizatzea: gizarte eztabaidagai bilakatzen da, eta horengain erabaki publikoak har daitezke. Gramscik garrantzia du erabaki horiek hartzen dituelako.

4. GIZARTE BOTEREA ETA BOTERE POLITIKOA

Boterea: norbaitengandik bildutako portaera lortzeko ahalmena

Besteekiko botereari dagokionez, besteen gaineko autoritatea, hots, besteen jokabidea eraldatzeko edo eragiteko gaitasuna dela esan daiteke. Talde bat dagoen tokian partaideen indarren arteko konfluentzia gertatzen dela onar dezakegu eta, ondorioz, pertsona batzuk beste batzuen gaineko menperatze erlazioak ere agertzen dira.

http://www.jakinmina.com/boterea_eta_bere_erak.htm)

Boterea: zerbaiterako ahala, indarra edo eskua; agintaritza, herri bateko gobernu; eraturako edozein autoritate.

Autoritatea: agintzeko eta obeditua izateko eskubide eta boterea; norbaiti gai batean aitortzen zaion sinesgarritasuna

(Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa, Donostia, 1998)

Botere tipologiak

Botere motak	Erak	Zigorak / sariak	Helburuaren berma
Aginte boterea	-arau juridikoak -agindu morala -agindu fakturala	Zigor sistema	Indarkeria (materiala, psikikoa, soziala)
Eragin boterea	-gogatzea -maneiu -aginpidea	Sari ematea (materiala, sinbolikoa, informazioa)	Ez dago indarkeriarik

*Egitura ekonomikoan hainbat egoera osatzeko hainbat iturri daude.

Botere politikoa

- Indarkeria legitimoaren erailpena erabakien beharkizunetarako bermatzaile (Weber, Almond,...)
- Botere legitimoaren kontrakoa botere fakturala da (Weber)

Botere politikoaren ezaugarriak:

-Esklusibotasuna: indarkeriaren monopolioa (monopolioa helburu), berearen monopolioa babestu nahi du.

-Unibertsaltasuna: erabaki horiek komunitate osoarentzako dira.

-Inklusibotasuna:.....

FOUCAULT

Michel Foucault ([Poitiers, Frantzia, 1926ko urriaren 15a](#) - [Paris, Frantzia, 1984ko ekainaren 26a](#)), **filosofo** estrukturalista [frantziarra](#)izan zen, eta Pentsamendu sistemen historia katedraren irakaslea Collège de France-n [1970etik 1984ra](#). Bere obrak eragin handia izan du [giza](#) nahiz [gizarte zientzietako](#) autore ugartan.

(https://eu.wikipedia.org/wiki/Michel_Foucault)

Boterearen beste definizio bat ematen du; boterea ez da hierarkizazio bat denok dena ikusi eta kontrolatzen dugu.

Gizarte boterea askoz zabalagoa da, eta unean unekoaz hitz egingo du.

Botere fenomeno guztiak ez dira mugatzen botere politikoan.

Botere politikoaren berariazkotasuna (izaera propioa ematen diotenak)

-Ezberdintasuna eta gatazka

Gizarte baliabideen arteko ezberdintasunak eragindako gatazkek.

Barne gatazka

-Baliabideak aipatzean hiru errekurtso

}	1. Indarkeriaren errekurtsoa
}	2. Errekurtso ekologikoa
}	3. Errekurtso kulturala

*Errekurtsoen banaketaren gaineko kontrola

-Sexu indarkeria

-Gobernatu eta gobernarien arteko harremana

Kanpo gatazka → Kanpo mehatxua

-Indarkeria eta legitimitatearen arteko aliantza: Indarkeriaren kontrola eta gutxieneko legitimazio maila baten mobilizazioa. Indarkeriaren kontrola estatuen bidezko erakunde bidez egina. Legitimaziorako kontzeptu ideologikoaren artean Kuban iraultza.

-Gaur egun legitimaziorako erabiltzen diren elementuak (ez dira prozesu naturalak, prozesu sozialak dira):

1. Estatua eta zuzenbidea

2. Gizarte batean onartutako edo onarrarazitako sinismenekiko harremana.

Kataluniako egoera : botere politikoaren arteko gatazka.

-erakundeek dute boterea

-garai honetan inportanteena legitimazioa (hainbat errekurtso ideologiko

*Helburua → atxikimendu soziala eskuratzea

Botere politikoaren eraginkortasuna

- Bereizketa → funtzio politikoaren espezializazio prozesua
 1. Legislazioa → arauak sortzeko funtzioa
 2. Administrazioa → arauak betearazteko funtzioa
 3. Jurisdikzioa → sortutako arau horiek betetzean sor daitezkeen gatazkak konpontzeko funtzioa
 4. Segurtasuna

- Erakundetzea → funtzio horiek bete ahal izateko bitarteko fisiko eta materialak
 1. Legislazioa → parlamentua
 2. Administrazioa → gobernu edo administrazio publikoa
 3. Jurisdikzioa → Epaitegiak
 4. Segurtasuna → Armada...

- Erabakitze gune baten eraikuntza prozesua subiranotasunaren gune konkretu batean kokatzen da. Gure konkretu hori zentro politiko bat ezartzearena da. Hemen amaitzen da prozesua.

Gaien politizaziorako urratsak, botere politikoaren agerpenak

1. Gatazka gai baten inguruan egileak mobilizatzen dira. Kaltegarritzat jotzen den balioen edo errekurtsoen banaketa desorekatu bat identifikatzen da.
Arazoaren gaineko kontzientzia hedatzen da inplikaturako eragileengan, hauek proposamenak eta eskaerak egingo dituzte.
Proposamenak eta eskaerak lortze aldera eragileek errekurtsuak erabiltzen dituzte (ezagutza, informazioa, dirua, antolaketa, armak...)
Gatazka eszenatoki publikora eramaten da komunitate osorako erabaki lotesleak hartzeko eskaera eginez. Erabaki hauek indarrean jarriko direlako eta obedituko direlako berma indarkeria instituzionala da.

2. Eragileren batek edo zenbaitek gai bat politizatu ez dadin ahalmena dute agenda politikoa kontrolatzen dutelako. Gaia erabaki lotesleetatik kanpo mantentzen dute.

3. Eragileren batek gai bat problematikotzat ez jotzea lortzen du, besteen pentsaeretan eraginez.

5. MENERAPENA ETA LEGITIMAZIOA

+Zer da menaperena?

Zer da estatuaren menaperena? Eta hara hemen bere erantzun zorrotza: estatuaren menaperena guda da. Estatu eratzaileen lehen-leheniko guda bere hiritarrei zuzendurikoa da, non bere hiritarren menaperena, guda-politikaz lortzen baita. Azken batean, zehaztasun gehiagotara sartu gabe, Foucaultek estatu arrazismoa zera honi deitzen dio: menaperen guda politikari.

(<http://www.nabarralde.com/es/nabarmena/8891-noiz-arte-espainiaren-guda-politika>)

+Arauen eta menerapenen arteko lotura?

Arauk ekoizpen modu bat izan daitezkeelako (Eskema hiru mailatakoa edo bitakoa izan daiteke)

Botereak elkarrekintza gisara dituen mugak (Arauek eta egiturek boterea mugatzen dute)

MAILA	ALORRA	BALDINTZAK	KONTZEPTUA
<u>Agerikoa</u>	Elkarrekintza, Harremana	Errekurtsoen ebaluazioa (informazioaren joko)	BOTEREA
<u>Ertaina</u>	Arrazionaltasun erak	-Ohiturak -Araudiak	ARAUAK (botere harremanetan egin daitekeena definitu)
<u>Oinarrizkoa</u>	Ekoizpen moduak -Ondasun materialak -Ondasun sibolikoak (legitimazioarekin lotura) -Indarkeria (maila politikoan)	Botere errekurtsoen banaketa desorekatua (Sistema politiko batek sortutako errekurtsua da)	MENERAPENA (= dominazioa)

Taula honek edozein garaitarako, edozein sistema politikorako... balio du.

Arauk zuzenbidearekin lotuko genuke. Botere politikoak muga batzuk ditu; beraz, ezin du hortik aurrera egin, eta horri legalitatea deritzogu.

Agerikoa (maila) da ikusten dena. Boterea harreman mota bat da.

Adb: Katalunya

MAILA	ALORRA	BALDINTZAK	KONTZEPTUA
<u>Agerikoa</u>	<i>Generalitat eta Espainiako gobernua (Biek beren plana egin dute hori aurrera eraman ahal izateko)</i>	<i>Horretarako, besteen errekurtsoen azterketa bat egin dute; besteek hori egiten badute, guk zer? Gu gai bagara besteek nola?</i> <i>Katalunya: *Herria ez bada mugitzen polizien erasoen aurka, Espainiako gobernuak negoziatuko ahal du?</i>	Boterea

<u>Ertaina</u>			<i>Printzipioz arau legalek diotenera mugatuko dira (legalitatea) Baina arau sozialak ere badira beraz, arauak.</i>
<u>Oinarrizkoa</u>	<i>Ekoizpen moduak</i> <i>*Polizia hemen kokatuko da errekurtsio bat delako. Polizia izango da indarkeriaren adibide.</i> <i>*Ondasun sinbolikoei dagokienez informazioa hainbat lekutatik jaso daiteke, internetik esaterako.</i>	<i>Adibide honekin garbi geratu da batzuek beste batzuek baina errekurtsio gehiago dituztela.</i> <i>Katalunyak Espainiak baina botere gutxiago du.</i> <i>Garbi geratu da poliziaren kasuan zer gertatu den.</i> <i>Zergatik ez dio Espainiak Kataluniari erabakitzen utzi?</i>	Menerapena

Adb: partida (botere harremanak)

2 futbol talde daude eta bertan jokalaria, entrenatzailea eta ikasleak daude. Hauek jokatzeko orduan arau batzuk dituzte, eta arau horiek egitura batetik sortuak dira. Talde horien gisan eta egitura horietako bat egitura mediatikoa da.

→ Adibidea maila politikora ekarri beharra dago, politikariek aurkarien pausoak aurre ikusten dituztelako.

+Arauek eragina dute menerapenean eta botere banaketan?

Arauek botere errekurtsioak nola sortzen diren esan dezakete.

Gizarteko egitura batzuk errekurtsioak sortu eta hauek erabili.

Legalitatea, legitimitatea, legitimazioa

1. Legalitatea → eragile politikoen jarduerari dagokion kontzeptua. Legearen mugen barruan ari izatea.
Isonomia / rules of law / zuzenbide estatua → denok berdinak gara legearen aurrean

-Legearen boterea (berezko botere):

-Botere arbitrarioa:

2. Legitimitatea → boterearen titularitateari dagokion kontzeptua. Bere legitimoa legalitatearen arabera ezarritakoa.

-Botere legitimoa: (*Urkulluren adibidea*)

-Botere fakturala:

3. Legitimazioa → prozesua. Onarpen soziala.

Borroka ideologiko-kulturala → lau mailatan gerta daiteke:

-Komunitate politikoa: (Espainia / Katalunia)

-Erregimen politikoa (Maiatzak 15)

-Gobernua

-Kanpo hegemonia

Legitimazioa botere politikoaren ifrentzua

Legitimazioak boterea ideien eta balioen munduarekin lotzen du. Legitimazioa errekurtsio kulturaletan oinarritzen da.

Weber → Ideologia iritzi publiko batetik abiatzen da, eta kate gisa lotzen du. Arazo bakoitzarentzat zein iritzi publiko dagoen adierazten du. Ez dute diskurtso osorik eta uneoro aldatzen ari dira. Lehen lehenengo ideologia bat genuen eta horren arabera iritziak; orain, aldiz, argudio teknikoak erabiltzen dira. Gaur egun ideologiaz beharrean iritzi publikoaz hitz egin behar dugu.

Weberren ustetan legitimazioak hiru iturri ditu:

1. Tradizioa. Ohitura... (Erakundetzeak eta erakundeak sortzen dituen ekintzak)
2. Arrazionalitatea. Bilatzen diren helburuen eta erabiltzen diren baliabideen arteko egokitzea. (*Helburu politiko bat badugu, funtzio politiko bat bete behar badugu horiek bat etorri beharra dira*) Bat etortze hau arau eta erakunde bilakatzen da, legalitatea. Estatu eta zuzenbidea. (legitimazioa zuzenbide estatuaren ideietan oinarritzen da)
3. Karisma (Pertsona batek beste batzuegan maila psikologiko batean erakargarratasuna sortzeko duen ahalmena, pertsona bat lidertzat jotzean hainbat ezaugarri onartzen zaizkio. Askotan lidergoari eskatzen zaio erakargarratasuna) → *Adb: Erdiaroan sortzen ziren erregeak.*
4. Etekin/Erakargarritasuna. (Sistema politikoaren efektibitatea) *Laugarren hau gaur egun gehitu litekeen iturri bat da.*

3. GAIA: FORMA POLITIKO HISTORIKOA

1. Forma politiko historikoa
2. Estatu; absolutismoa VS liberalismoa

Atal honetan, bidai historiko batean sartuko gara, horretarako tipologia bat eraikiko dugu; bertan bi irizpide ezarriko ditugu, Vallesen irizpideak jarraiki.

Lehenengoa; aztertuko ditugun forma politiko horiek, ze funtzio politikoaren espezializazio maila dute? Handia, erakunde bereziak, eragile espezializatuak, prozedura zehaztuak... Bigarren irizpidea; aztertuko ditugun forma politiko horiek,

noraino eraman dute indarkeria legitimoaren monopolioaren maila (ezin da estatu bat monopolizatu baina hurbilketa egin daiteke); programa, asmo ideologikoa.

Bi irizpide hauek, estatuaren ezaugarri nagusiak dira.

Tribu-sistemak

Aurre politikoak deitzen zaie erakunde politiko zehatzik ez zegoelako, Mokoroaren ikuspuntutik, talde batean erabakiak hartzen direnean, erabaki horiek politikotzat ditu.

Ezaugarriak; paleolitikoaren garaian kokatzen gara, bertan gizatalde nomada ez oso zabalak daude 50-250tarteke tribuak dira. Gizarte hauek beharraren arabera mugitzen dira. Ahaidetasunean bizi dira, familia loturak oso estuak dira.

Indarkeria erabili behar izanez gero talde osoa da subjektua, bertako taldekide guztiek hartuko dute parte zigor erabaki horietan, eta hala bada, indarkeria esku bakarrean ez badago, berdintasuna nagusi da gizatalde honetan, berdintasuna praktikan. Honek guztiak lotura du ondorengo fenomenoarekin; kideen arteko gatazka mailak oso baxuak dira, zergatik? Taldearen superbizipena bermatzeko. Hau da, talde txikiak ziren einaen haien taldeak bizirauteak zuen garrantzia.

Hiri polisa

Hiriaren fenomenoak;(ez da berdina hiria eta polisa! Kontuz). Ehen hiriak Asia partean kokatzen dira; Mesopotamia, Turkia, Nilo, Sirian, Iraken, Indusen eta -ibai horien arroetan.

Zer da hiria? Tribu sistemak nomada izatetik sedentario izatera bihurtzen direnez han, hau nekazaritzaren hedapenarekin dago lotuta. Hiria prozesu sedentarioaren hasiera izango da. Nekazaritza garatuko duen antolaketa sozial forma bat dugu, eta honek zer dakar? Soberakinak. Soberakin hauek kudeatu behar dira, eta horretarako, hainbat instituzio/prozedura garatuko dira; azokak, aletegien gaineko kontrola (hazien etxetxoaren kontrola), banaketa sistema...eta era berean trukea hasiko da sortzen, prezioaren ezarpena...eta hau dena norbaitek ezarriko du.

Honen inguruan beste eraikin eta instituzioak sortuko dira; santutegizat har daitezkeenak, eta noski jauregi babeslekuak ere sortzen hasten dira. Beste taldeen erasoetatik babesteko.

Prozedura politikoak beraz, soberakin ekonomikoen metaketaren eta banaketaren gaineko gatazkak bideratzeko asmoz, jarduera eta prozedura politikoak abian jarriko dituzte. Beraz, pertsona batzuk besteak baino kontrol bitarteko handiagoa hartzen joango dira, eta horrela gizarte estratifikazioa finkatzeko interesak indartuko dira. Beraz, gobernatu eta gobernarien arteko bereizketa sortuko da, nahiz eta oso garbia.

Polisa da hiriaren kasu oso berezi bat.

Atenasek bere garai honenean milioi laurden bat pertsona zituen biztanle eta hauetatik 40.000 ziren hiritar, hau da KANPOTARRAK EZ, ETA SOILIK PITILINA DUTENEK, ATENASEKO GURASOAK ZITUZTENAK, ADIN BATETIK GORAKOAK.

Hemen aldaketa bat dago tribu sisteman, leialtasun politikoa ez da ahaidetasunean oinarritzen, hiriarekiko harremanean baizik, nahiz eta lehen loturek gizarte kohesioan garrantzia izan zuten, hiritarra zara hiriaren kudeaketan parte hartzen duzulako, eta ahaidea zarelako.

ATENAS. POLISAREN EGITURA POLITIKOA.(mokoroaren apunteak egelatik hartuak)

Ekklesia: Hiritarren asanblada, 20 urtetik gorako gizonezko eskubide zibildunak.

- Funtzioak: legeak idatzi eta onartu, bakea ala gerra erabaki eta beste hiru erakundeetako partaideak aukeratu (Boulé, herri Auzitegiak eta Magistratuak).
- legeak onartu ahal izateko eskatzen zen hiritarren quorum bat; hau da hiritarren 1/5, 6000 pertsona inguru.

Boule edo bostehunen kontseilua: Urte beterako zozketaz hautatutako 500 hiritarrez osatua. Asanbladaren batzorde iraunkorra eta eskumen legegileduna zen.

- Funtzioak: -Ekklesiak aztertu beharreko gaiak prestatu.

-Hiriaren finantzak kudeatu

-Phila: Eguneroko gaiak lantzeko bostehunen batzordearen hamarrena, 50 kidek osatua. Urtea hamar saiotan banatuta zegoen.

-Episates: Philaren presidentea. Egunero zozketaz aukeratua, zergatik egunero? Inork botere konzentrazioerik ez lortzeko, beste modu batera esanda, elite politikoaren sorrera ekiditeko.

Magistratuak: Urtebeterako, zozketa edo bozketaren bidez hautatuak. Bi dira magistraturarik garrantzitsuenak:

- Arkonteak: Funtzio exekutiboak (maila batean). Goi klaseetako kideak. Aurreko ondarezko monarkia eredu azterna.
- Estrategak: Gai militarrez arduratzen ziren (armada zuzendu eta antolatzea). Ondoren arkonteen funtzioak ere bete zituzten.

Auzitegiak: Gizartean sortzen diren gatazkak kontrolatzeko sistema eta aldi berean arauak bete ez eta zigorrak ezartzeko tresna.

Urtebeterako zozketaz aukeratutako 6.000 hiritarrez osatua.

Areopagoa: Heriotza delituak

Inperioak

Hiriak baino lurralde zabalagoa hartzen du. Egituraren erpinean pertsona bat ezartzen da, eta honek, indarkeriaren bitartekoen kontrola izango du. Inperioaren menerapen tresnak armada eta burokrazia dira.

Inperio oso ezberdinak egon dira; kalifa, erregeen errege, faraoia, zesar,... Hauek inperio horietako enperadoreak dira.

Bi inperio mota daude; legar inperioak eta inperio burokratikoak.

- Legar inperioak; Mongoliar inperioa, inperio krolingioa.. Konkista izango da inperio honen ezaugarri nagusia, inperioak konkistatutako lurraldeei babes emango die, mendekotasuna eta legarren (tributoaren truke) Enperadoreak tokiko agintarien esku uzten du gobernu.
- Inperio burokratikoak: ezaugarri nagusia burokrazia da. Egipto, Txina, Kalifatoa, Erromatar inperioa... (oso ezaugarri ezberdinetako kasuak)

Babes-legar harremanetik harantzago doan politika proiektua da; zentralizazio proiektua da hain zuzen.

Zentralizazioa. Periferiaren uniformetzea. Kolonizazioa

Aparau politiko-burokratikoak:

- Errepide loturak
- Herri-lanak: ureztatze egiturak...
- Ogasuna

POLIARKIA FEUDALAK:

- Poliarkia; askoren boterea; feudalismoa boterearen egituraren lurralde zatiketari deritzogu. Ondarezko zenbait gune politiko osaturiko hierarkia
 - Botere errekurso politiko banaketari dagokio
 - Boterearen egituraren lurralde zatiketari

Botere errekurso politiko zatiketa; hau da, zenbait botere errekurso militar eta ekonomiko guneren arteko laguntzarako eta babeserako aliantza; erresumak, printzerriak, dukerriak...

Monarkia Estamentala

- Feudalismoetik estatu absolturantzko urratsa
- Hiriaren eta merkataritza jardueraren arrakastaren ondorioa
- Interesen ordezkatzeko estamentuek ezagutza soziala eta juridikoa izango dute
- hiria eta beste botere guneen arteko harremanen ondorioz aurreko oreka politikoa aldatuko da (burgesiak) zenbaitetan jaunen aurka egingo dute, beste batzuetan jaun boteretsuenarekin, erregearekin, aliatuko dira
- Erregearen eginkizuna errotik aldatzen da. Jaunetako bat bada ere aginpide bereziaz janzten da,, bitartekari eskumenak jasotzen ditu
- Erregea eta hirien arteko aliantzaren nagusitasuna beste botere feudale aurrean
- Hiriaren oligarkia

Monarkia absolutuak / Estatu absolutuak

En primer lugar me place y doy por fuero que no vayan en hueste ni en cabalgada. Y que los supradichos pobladores sean libres y exentos de todo mal fuero y de toda mala costumbre para siempre. Igualmente doy y concedo que los pobladores de San Sebastián que llegaren por mar o por tierra a San Sebastian, y vinieren a la predicha villa con su mercancía, no den lezda ni allí ni en toda mi tierra Solamente retengo esto: que si alguno de los pobladores comprase fardos o alguna mercancía en Bayona, y pasase por San Sebastián para vender en otro lugar la predicha mercancía, dé lezda. Pero si vendiese en San Sebastián la predicha mercancía, no dé lezda.

(Donostiako Foruko pasarte bat)

Adibide bat, Bruselaseko Grand Place merkatura bideratutako plaza da, beste leku askotan berriz plazetan elizak daude, eta Bruselasean, berriz, ez.

*Bruselaseko plazaren eta inguruen banaketaren esplikazioa egin du. Gremioak (garrantzitsua: garagardogileen korporazioa).

Estatu modernoak garai honetan sortzen hasten den instituzio politiko nagusia da. Errenazimendu garaian sortuko da. *Monarkia Espainiarrean 1914an nabaritutako da.*

Estatu absolutua merkataritzaren hazkundearen ondorio da. Honek, itsasoz gaindiko espedizioen antolaketa dakar. Merkataritza distantzia luzeko, finantzazio handiko eta babes eskatzen duen jardura bat da.

Badira elementu batzuk guri oso harrigarriak gertatzen zaizkigunak, eta horietako bat da polboraren agerpena. Honek, ejertzito iraunkorren agerpena ekarriko du, baita militarren indartzea ere.

Guzti honek antolaketa politikoaren burokratizazioa eta zentralizazioa ekarriko du. Bertan, ordena juridiko bakarra, sistema fiskal eta administratibo bat eta armadaren antolaketa ezarriko dira.

Estatuaren eta monarkiaren arteko identifikazio bat emango da. Bertan, eregearen eta subditoaren (menekoaren) arteko harreman bat emango da. Menekoek ordenari erantzuna eman beharko dio. Hauen jarduerak erregeak emandako pribilegioek zuzenduak izango dira; baina, batzuek bakarrik izango dute monarkaren pribilegioez gozatzeko aukera. Honekin, harreman feudala eta mailakatzea desagertzen hasiko da. Bertan, subiranotasuna, botere politikoak erregek kontrolatuko ditu, eta hiritar zehatzei eta hainbat erakunderi kontzesioak emango dizkie. Monarkiak dio zuzenbidea erregearen borondatearen adierazpena da, hau da, erregeak erabakitzen duenak legearen indarra du. Honek, estatuaren monopolio juridiko bat ekarriko du, non, bertan monarkaren nahiak defendatuko diren. Jainkoaren nahia izango da guztiaren oinarritzeko argudioa. Baina, egiten den guztia erregearen izenean egingo da.

Estatu absolutua ekonomiaz arduratuko den estatu ba da, gehien bat merkataritzaren trafikoaz arduratuko dena. Ardura hori maila guztietan hartuko du, eta ardura honek monopolioak emango ditu. *Real Compañía Guipuzkoana de Caracasen erregeak berari ematen zion estatu osoko txokolatearen produkzioa (txokolatearen merkataritzaren monopolioa herrialde osoan)*, Monarka zen prezioa ezartzen zituena, eta soldata ere berak ezartzen zuen. Orduan, monarka eredu paternalista gisan azaltzen da herrialdean, bera da gizartearen ongizate orokorraz arduratu behar duena.

Estatu absolutuaren oinarri ideologikoan zerikusia izan duten autoreetako batzuk honakoak dira; Maquiavelli, Bodin, Hobbes, Leviathan,...

Estatu Liberala / Oinarri ideologikoak (ereduz erabat aldatuko dugu)

Liberalismoaren hiritarren sorrera.

Meneku hitza agertu beharrean, guzti hau kontzeptu berri baten inguruan garatzen da, eta honi hiritarra deritza. Hiritarra estatu absolutuaren jardueren kontra agertzen den programa politiko berri bat izango da. Euren helburua estatu absolutuaren jardueri mugak ezartzea izango da.

Hau garai eta toki ezberdinetan gertatzen da, bakoitzak bere prozesua baitauka. Ingalaterran XVII. Menderako proiektua abian da, Frantzia Frantziako iraultzarekin batera 1789an, AEBn bertako iraultzarekin batera, eta Espainian 1870 inguruan, baina, gero eten batzuk izango dira.

Hemen Locke, Rousseau, Montesquieu edota Kant koka genitzake.

- Locke: Liberalismoaren aitzindaritzat hartzen da gaur egun.

Ez zuen innatismoaren eta determinismoaren existentzian sinesten eta jakinduria zentzumenetatik datorrela uste zuen. Lockerentzat, jakinduria gertakizunen arteko erlazioagatik dator (Nola eta ez zergatik). Bere pentsamenduak arrazionalismoaren eta mekanismoaren elementuak ditu ere. Jainko sortzaile batean sinesten du eta gure existentzian eta ezerezetik ezin garela sortu oinarritzen du. Bere ustez, Jainkoaren asmoak lege naturalen bitartez soilik ikusi ahal dira. Erlijioa gauza pribatu eta pertsonal bezala ikusten zuen, gizakiaren eta Jainkoaren artean. Pribatizazio honekin, gizakiak elizaren ezarpenez eta behar izanaz libratzen da. Baita ere, estatu kristau bat sortzeko oinarri biblikorik ez dagoela pentsatzen zuen.

- Rousseau: oso filosofo berezia izan zen bere garaian, haize kontra joan zena, eta maiz kritikatu bere ideengatik.

Ilustrazio garaiko baikortasun eta aurrerabide giroan, hark gizartea, aurrerapena, arteak eta zientziak kritikatu eta mespretxatu zituen, arrazoian oinarritua, haiek gizakiaren ustelkeria eta gaitz guztien iturria zirela ondorioztatuz. Hau dela-eta, Erromantizismoaren aitzindaritzat hartzen da, arrazoiaurrean sentimenduen garrantzia azpimarratzen duen korrontea, hain zuzen ere. Pedagogian lan handia egin bazuen ere, ekarpen garrantzitsuenak politika arloan egin zituen, eta haren ideiek eragin handia izan zuten Frantziako Iraultzan.

- Montesquieu: Ilustrazio garaiko kronista eta pentsalari politikoa izan zen. Ilustrazioaren mugimenduko filosofo eta saiakeragile garrantzitsuenetakoa. Ospetsua da berak egituratu zuelako botereen banaketaren teoria, gaur egungo gobernu modernoetan oinarritzat jotzen dena eta mundu osoko konstituzio ugarritan ezarria.

Haren pentsamendua Ilustrazio frantsesaren izpiritu kritikoaren korrontean sartuta dago. Korronte horren ezaugarri nagusiak hauek dira: tolerantzia erlijiosoa, askatasunaren bilaketa eta zorientasunaren kontzeptu zibikoa. Hala ere, berak ez zituen jarraitu abstrakzioa edota metodo deduktiboa baztertzeko zuten korronte horretako beste egile

batzuek. Horrela, konstituzio ingelesaren zabaltzailea eta botereen banaketaren teoriko izanda, Lockeren pentsamendutik hurbil zegoen, eta *Persiar gutunak* liburuan idatzitakoarekin, Saint-Simonen pentsamenduarengandik hurbil; baina, betiere, bazituen bere ezaugarriak eta berezko izaera.

- Kant: Aurrenekoan formaren ezagutzak nola eraman dezakeen jakintzaren materiaren ezagutzara aztertu nahi zuen Kantek. Ezagutza sintesi prozesu bat zela zioen; prozesu horretan adimenak ematen du forma eta bizikizunek berriz materia; bi horien arteko batasuna irudimenaren bidez egiten da, irudimena ahalmen sortzailatzat hartzen baitzuen Kantek. Arrazoa bizikizunetatik etorri ezin diren kontzeptuei aplikatzen zaienean, hala nola Jainkoari edo arimari, arrazoiaren ilusioak sortzen dira, espekulazio direnak. Hori dela eta, Kantek ukatu egiten zuen tradizioko metafisikak gai horietan baliorik izan zezakeenik.

Proiektu politiko honek badu atzean proiektu bat eta proiektu hori ilustrazioaren arrazionalismoa da.

Estatu liberalaren teoriak bi oinarri nagusi ditu:

1. Legearen inperioa (absolutismoaren aurkako legea)
2. Gizabanakoaren ezin kenduzko eskubideen onarpena (lege horren onarpena)

*Bi oinarri hauek *ius naturalismo*arekin, hau da, zuzenbidearen lege naturaletan sartuko ditugu, eta honekin, Jainkoak, gure sortzaileak, jaiotzez hainbat eskubide izango ditugu. Beraz, edozein instituzio politikok hau babestu beharko du.

Garai honetako eskubide politikoak honakoak izango dira, eta aginte politikoak ezin dira onartu geneetan datozelako, aukeratuak izan beharra dira.

Sistema politiko honetan jabeak du sufragio zentsitarioa, hau da, bozka emateko eskubidea jabetza maila batera iristen denak soilik dauka. Beraz, estatu liberalaren hasierako sistema politiko hau eliteek erabili duten sistema politikoa izango da.

Zer da nazioa? Frantziako nazioa, gu guztiok frantziarrak gara (hiltzen garenean Frantziako nazioak irauango du? Bai) Beraz, guk ez dugu nazioa eratzen. Hortaz, nazioa gure ginetik dagoena da, eta erantzunak emango dituztenak ondoen prestatuta daudenak izango dira, hau da, beren etxea ondoen gobernatzen ikasi dutenak. Honek, hainbat eskubide denonak direla, hau da, jabetza eskubidea denok dugula adieraziko dute. Baina, bada beste kontu bat, non, jabetza horiek nola eta nork lortzen dituen aipatzen den.

Estatu absolutuaren praktikaren aurka gutxieneko estatuaren asmoa. Hauek hainbat arrazoi dituzte, eta arrazoi horiek honakoak dira:

- hiritarra subjektu bihurtuko da,
- legeak ez du monarkaren nahia adieraziko nazioaren borondatea (borondate orokorra) baizik,
- estatu absolutua zuzenbide estatu bilakatzen du,
- zuzenbideak estatuaren boterea mugatzen du, legeak agintarien eta hiritarren jarduna mugatzen du,
- botereen banaketa aldarrikatzen da, hiru botereen orekatzat azaltzen da.

Gutxieneko estatuaren asmoan gutxien behar denari erreparatzen diote. Gizarteak libreki joka dezan ez du estatu fuerte baten beharrik, minimoarekin libreki joka dezake (Adam Smith). *Zuk irabazi duzunarekin bizi beharra duzu*. Berak estatu liberalak hiru funtzio dituela aipatzen du:

1. Jarduera pribatuak burutzen ez dituten herri lanei ekitea, hau da, estatuak bete beharko ditu lan horiek.
2. Ordena publikoaren berma. Bertan, zuzenbidearen inplementazioa aplikatzen da. Polizia
3. Kanpo-erasoekiko defentsa. Hemen sartuko da armada.

Praktikan garatu zena instituzioen arrazionalizazio administratibo handi bat garatu zen. Hau da eredu hartzen ari zen ezaugarriak estatu liberalak gehiago markatu zituen, eta baita areagotu ere. Borondate orokorra burgesiaren ordezkari politikoen proposamenetara mugatuko da. Burgesiaren boterea areagotu eta sendotu egingo da. Hortaz, botere politikoa klase nagusien arteko konpromezu baten ondorio izango da. Ez da ez monarkia ez noblezia desagertzen (noblezia mantendu eta burgesia nagusituko da).

Sektore kontserbadore eta liberalen arteko bereizketa bat izango da, eta gizarte guztietan bi klase hauen arteko aliantza sortuko da. *Bi ganberatako sistemak izango dira horren adibide; Westminsterren bi ganbara (komunak eta lordak) eta batakerabakitzen zuena besteak berretsi beharra zuen*.

Praktikarekin jarraituz aipatu beharra dago estatu liberala estatu koloniala dela, hau da, koloniak dituen estatu bat. Burgesiaren estatuak bere lehengaiak defendatzeko erabiliko duen fenomeno da kolonialismoa. Hau da, kapital metaketa baten prozesua da kolonialismoa. *Afrikan ez dago kolonia ez den estaturik*

Nola izan daiteke estatu bat estatu minimo lurralde asko kontrolatu behar baditu? Hainbat kolonia kontrolatu beharra dituen estatua ezin da minimo izan sekulako estatu bihurtzen delako eta finantzatu beharra duelako. Sekulako aparatu administratiboa da (*mundu erdia Londresetik kontrolatuta dago*). Guzti hau finantzatu ahal izateko politika fiskalak izan beharra dira

Langileria bere eskubideen alde borrokatzen hasiz gero herrialde batek bere kapital metaketa lortu ahal izateko aukera izango du. Estatu liberalean teoria eta praktika kontraesankor batzuk sortuko dira.

Estatu liberala/ parlamentarizazioa

XIX. mendearen amaieran eta XX.mendearen hasiera bitartean parlamentarizazioari emango zaio hasiera. Hortaz, gobernuak parlamentaren konfiantza beharko du bere jarduna aurrera eramateko. Monarkia estatu liberalean gobernuarena zen, hau da, monarkaren gobernuaz hitz egingo dugu. Honek, lehen aipatutako klaseen (burgesia eta noblezia) arteko aliantzan jardungo du. Jarduera honek ez du kontrol efektiborik.

Honekin batera, bozkatzeko unibertsala garatzen hasiko da, eta parlamentua bere izaera oligarkikoa galtzen joango da.

Klase alderdiak agertuko dira, eta estatuaren esku hartze handiagoa izango da hemendik aurrera. Hemen masa alderdi handiak eta beste hainbat fenomeno (ongizate estatuaren hastapena) garatzen joango dira.

4.GAIA: ESTATUAREN ANTOLAKETA

Osagaiak: → hiru osagai hauek bat egiten dutenean estatua izango dugu.

- Biztanleria

Hiritartasun kontzeptuaren inguruan ari gara, hiritarra estatu batean eskubidedun subjektua eta beharkizunaren objektua izango da. Guzti hau estatu bakoitzak berea definituz bereiziko dugu.

Komunitatea irudikatze kontzeptua: nazioa; komunitate hori irudikatze bi ikuspegi nagusitu dira:

- Nazio politikoa: oinarri subjektiboa du, hau da, hiritarrek borondate politikoa agertzen dute estatua izateko. Hiritarrek libreki erabaki komunitate politikoa izatea; beraz, lehenengo izango dugu estatua, antolaketa politikoa, eta hauek, hiritarrak nortzuk diren zehaztu. Lehenengo estatua eta ondoren, nazioa. Ikuspegi hau Frantziako Iraultzatik dator. (Nazionalismo zibikoa)
- Nazio kulturala: Alemanian sortzen da, eta nazioak oinarri objektiboa eta sustantiboa duela planteatzen du. Hizkuntza edota erlijio bera dutenek nazioa dira, hau da, ezaugarri komunak dituzten herrialdek nazioak dira. Kasu honetan, lehenengo nazioa eta ondoren, estatua. (Nazionalismo etikoa)

- Lurraldea

Mugak dituen lur batez hitz egiten ari gara, hau da, lurralde mugarriztatu batez hitz egiten ari gara. Muga horien artean daude: lurpea, lurra, barne urak, aireko espazioa eta kostan kostaldeko itsasoko espazioa.

- Subiranotasuna

Mugarriztutako lurralde batean biztanleriarentzako erabaki lotesleak hartzeko eskumen eksklusiboa litzateke, hau da, beste aginte gune batenganako menpekotasun eza.

Hemen muga batzuk azal daitezke, adibidez, hitzarmen baten bidez borondatezko onaren bat egiten denean. Baina, hau borondatezkoa da.

Legalitateak ere mugak ezartzen dizkio subiranotasunari.

Realpolitik, Alemanian sortutako kontzeptu bat da, eta gertatzen da. Subiranotasuna benetan mugatuta dago. *Irak estatu subirano bat da, eta bere jarduna AEBk kontrolatu; beraz, realpolitik mugak ezarri*

Morfologia

Erakunde politiko mota horiek hainbat modutara azal daitezke, hau da, **morfologia** ezberdina izan dezakete, eta horretarako lau kontzeptu hauek erabiliko ditugu. (*bere estrategia, autore batzuek hau aipatu eta beste batzuek aipatu ere ez*)

- Gobernu forma: botere gorenaren jardueraren eta antolaketa moduaren forma. Monarkia edo errepublika *Frantziar botere gorena Makroni dagokio, eta bera errepublikako presidentea da, eta Espainiaren kasuan monarkia bat dago*
- Gobernu sistema: Erabaki publikoak hartzeko prozesuaren gaineko kontrolen eta erantzukizunen funtzionamenduaren antolaketa forma. Estatuaren botereen arteko harremana. Botere legegilearen eta exekutiboaren arteko harremana nola

azaltzen den ikusiko dugu. *AEBn sistema presidentzialista bat dugu, eta botere exekutiboa presindeak berak du, hau da, pertsonak berak. Ez botereak ez parlamentuak ez du botere legegilea kontrolatuko. Presidente hauteskunde berezi batzuen bidez hautatzen da. Beraz, harreman zuzena dago parlamentua eta exekutiboaren artean (Gobernu parlamentuaren konfiantzaz gobernatu)*

1. Biltzar sistema, toki batean bakarrik eman: *Suitzan*.


Hautesleek → Biltzarra → Exekutibokideak (batzorde federala) → Ministerioak

Hautesleek botoak eman eta behin legebiltzarra osatuta dagoenean biltzarrak exekutibokideak hautatzen ditu, Beraz, parlamentua osatzen duten alderdi guztietako kideek osatuko dute gobernu. Kasu honetan, 7 kidek osatzen dute gobernu. Eta gobernu horretan hartzen diren erabakiak aho batez hartu beharra dira. Exekutibo kide bakoitzak ministerio baten ardura hartuko du; beraz, Suitzan zazpi ministerio daude.

Ez da normala, legegintzaldia amaituta, batzordeko kideak aldatzea. Horrek, egonkortasun politikoa ematen du. Baina batzordeko burua, urtero txandakatzen da. Halere, salbuespen bat egon zen, UDCK kanpaina politiko arrazista bat egin zuenean. Orduan, formula magiko hau hautsi zen. Halere, UDCK botatuena izaten jarraitzen du.

Biltzarrean bi ganbra bereiz ditzakegu. Batetik, goi ganbara, non senatuak lurraldea babesten duen, eta bestetik behe ganbara, non, hiritarrek babesten duen, eta hiritarren bozaren arabera den.

2. Sistema presidentzialista (aurrekoaren kontrakoa, exekutibo eta legegilearen arteko harremanari erreparatuz)



Hemen aurkituko dugu bi botereen arteko harremanik ahulena, askok diote bien artean ez dagoela harremanik. Hautesle batzuk biltzarra aukeratzen dute, eta beste batzuk presidentea.

Presidente, erantzukizun politikoa duen bakarra, izango litzateke bai estatuburu eta baita exekutibo buru ere, eta mezu eskubidea du, hau da, bere eskubideak defendatzeko aukera du. Presidenteak beto

eskubidea ere badu, eta exekutibo eta legegilearen artean harremana lortzeko, 'impeachment' prozedura izango dugu, hau da, presidentearen epai politikoa. Hau konstituzioaren kontrako jardueraren bat egin denaren susmoa badago honetara joko dugu.


Presidenteak bere idazkariak hautatu edota kargugabetuko ditu.

Aurrekontuek beti lege forma dute, eta legea den heinean legebiltzarral onartuak izan behar dute. Beraz, honek exekutiboaren jarduna zein izan daiteken bideratzen du.

AEBn eredu hau oso hedatuta dago, eta bertako estatu idazkaria nazioarteko harremanez arduratuko da. AEBn bi ganbera daude (senatuak eta ordezkariak), lehenengo, ordezkariak bozkatzeko dute zer eramango den aurrera, eta ondoren, senatuak hartuko ditu erabakiak. Beraz, deliturik balego presidentea kargugabetuko dute.

Zer da idazkari bat? Ez dute kargu politikorik, politikarientzako 'laguntza' hutsa dira.

3. Sistema parlamentario monista, hau gure inguruan ikusiko dugu



Hemen izango dugu botere legislatibo eta exekutiboaren arteko harremanik estuena. Horregatik, sistema honetan esaten da gobernuak biltzarraren konfiantzaz jarduten duela. Legebiltzarraren konfiantzaren adierazle ez da bakarrik inberstidura bozketa hori, beste bi bitartekari daude: konfiantza mozioa eta zentsura mozioa.

Zentsura mozioa parlamentuak aurkeztuko dio lehendakariari, eta oartzuz gero kargugabetuak izango dira. Konfiantza mozioaren kasuan, berriz, presidenteak aurkeztuko du bere burua, hau da, ia berarengan konfiantza duten adierazten dute.

Gure sistema parlamentarioan beste kontrol bitarteko batzuk ere izendatzen dira, adibidez, astero talde parlamentarioek gobernuaren gaineko kontrol bat egiten dute. Kontrol hau AEBn ez da ematen.

4. Sistema parlamentario dualista (sistema semipresidentzialista) *Frantziako* kasuan hau gertatzen da.



Hautesleek bi hauteskuderen bidez biltzarra eta presidentea aukeratzen dute; baina, hemen exekutibo eta legegileen artean lotura handiagoa dago. Hemen, presidenteak legebiltzarra suntsitu edota osa dezakeelako, eta presidenteak gobernu buru gaia ere izenda dezake. Hau onartzen duena talde biltzarra izango da.

Makron presidente hautatua izan zen, eta ondoren asanbladarako hauteskunde batzuk izan ziren. Bertan, Makronek hautatu zuen, eta bera izan zen bozkatua.

Gobernuburuak ministerioak izendatu eta kargugabetu ditzake, eta ministroek ministerioak zuzenduko dituzte. Sistema semipresidentzialistan bi gobernuburu daude; batetik, gobernu eta gobernuburu eta bestetik, estatuburu (presidente). *Frantziaren kasuan estatu buruak nazioarteko ordezkaritza eraman.* Beraz, eskumenak banatuta daude. Estatu burua ganbara horretara egokituko da.

- Erregimen politikoa: botere politiko errekurtsioak eskuratzeko borroka arautzen duen multzoa da.
 - Demokratikoak
 - Ez demokratikoak: autoritarismoak eta totalitarismoak

- Estatu forma: estatuaz hitz egiten ari gaineranean ohartuko gara estatuak hiru osagai dituela: herria/nazioa, lurraldea eta subiranotasuna. Baina, estatu formaz ari garenean hiru ezaugarri horien konbinaketaz ari gara.
 1. Bateratua: Agindu gehienak guztiak ez esatearen estatu zentraletik emago dira.
 - a. Zentralizazioa: egun ez dira kasu asko; baina estatu bateratu eta zentralizatu baten adibide dira *Danimarka edota Portugal*.

 - b. Deszentralizazioa, aldiz, botere politiko lokalek deszentralizazio administratiboa edota politikoa jaso dezakete.
 - i. Administratiboei programa publiko batzuen ejekuzioa onartu egiten zaie botere politiko lokal horiei. *Langabetuei zuzenduriko programak*. Hortaz, estatu zentralak bideratu eta garatutako politiken egokitzapena soilik ez da. Tokiko entitate horiek ez dute botere politikoaren errekurtsorik.
 - ii. Politikoaz ari garenean Espainiaz hitz egin dezakegu, hau da, autonomiaren estatuen adibide batez.

*Eskumenak: materia (zer funtzio? *Kultura*) + funtzioa (oinarrizko legea, garapen legea eta ejekuzioa)

Oinarrizko legeak estatu osoarentzat berdinak izaten dira, eta ondoren herrialde bakoitzak bere egokitzapenak egingo dizkio. *Espainiaren kasuan LOMCE*.

- Esklusiboa: zehaztutako eskumen guztiak hauen esku geratzen direnean.

- Partekatua: botere politiko gune batek lege bati jarraitzen dio eta besteek, berriz, eurenari jarraituko diote. Funtzio bakoitza botere politiko ezberdinari dagokio. Funtzio nagusia Gobernu Zentralak izango du.

- Konkurrentea: materia berean gobernu zentralak eta autonomia gobernuak eskumen berak izan ditzake. *Museoen gaineko eskumenak*.

2. Federazioa

- a. Estatu federala: botere zentral bat eskumen federalaz arduratzen da eta beste eskumenak estatuen esku daudenean. Kasu honetan, estatuak ez dira independenteak, erakunde federalaren menpe baitaude.
- b. Estatu konfederala: estatu konfederala osatzen duten estatu guztiak subiranoak dira. Estatu subirano hauek hitzarmen bat osatu dute. Estatu bakoitzak bere armada du. Baina, estatu askok federalaren antza dutenez federal izatera pasatzen ari dira.

Botere legegilea: parlamentua

1. Definizioa. Ezaugarriak

Parlamentuak, kide anitzeko ordezkatzeko erakundeak dira. Ordezkatze sistema politikoetan, ezinbesteko erakundeak dira (antolaketa kolejiatua du). Hauteskundez aukeratzen den erakundea hain zuzen ere.

5 EZAUGARRI nagusi:

- 1- Legebiltzarra estatuaren organo asanblearioa da, kide askoz osaturik dagoela esan nahi du. Erakunde kolegiatu (kide guztiek eskumen berak) bat da
- 2- Ordezkatze erakunde bat da. Beraz ordezkari osaturik eta beraz printzipioz hiritarren asmo politikoak defendatzeko eta adierazteko organoa
- 3- Legebiltzarra erakunde iraunkorra da, estatuko beste botereekiko mendekotasunik ez duen organo bat da. Betiere agerpen bat izango luke.
- 4- Parlamentuak gaur egun, gizartearen aniztasuna islatzen duen organo bat da
- 5- Hiritarren hautaturiko legebiltzarkideez osatuta dago, hau da, parlamentuaren ondoan beste prozedura bat kokatu behar dugu.

Lehia hauteskundeek ze EZAUGARRI?

- a) sufragio unibertsala: Hiritar guztiak dute bozkatzeko aukera. Bi motatako sufragio:
 - Sufragio aktiboa: herritar guztiek eman ahal dute
 - Sufragio pasiboa: hautagaia izateko aukera
- b) Aldikako deialdiak: Hauteskundeak ezartzeko deialdiak 4 urtez behin.

- c) Hautagaiak aurkezteko askatasuna
- d) Hauteskunde kanpainarako aukera askatasuna.
- e) Erakunde publikoen neutraltasuna
- f) Bozaren sekretuaren berma: inork ez jakitea zer botatzen dezun
- g) Bozen zenbaketa publikoa
- h) Eserlekuen banaketa aurrez zehaztutako hauteskunde sistema batekin lotuta egon behar du
- i) Hauteskunde arauen aplikazioen inguruko gatazkei epaia emango dien eratzea

2.Funtzioak

5 eginkizun:

- 1- Legeak egitea (eginkizun nagusia XIX.mende bukaeran) (gaur egun ez da horrela gobernuak ere baduelako botere legegilea)
- 2- Legebiltzarrak aurrekontu orokorrak legez onartzen ditu. Gobernu batek jakiteko ze helburu dauzkan jakiteko aurrekontu orokorrez baliatzen dira.
- 3- Kontrol funtzio, botere betearazlearen jarduna kontrolatzen du.
- 4- Botere betearazlearen sustapen funtzioak (gobernuaren hautaketa, botere betearazlea duena hautatzea hain zuzen,)
- 5- Gatazka politikoak bideratzea.

TRESNAK:

- a) Interpelazio parlamentarioak
- b) Batzorde bereziak sortzea(ikertzekoak)

Oharra: Segun ze sistema erabiltzen dugu tresna gehiago edo gutxiago izango dituzte parlamentuak.

3.Parlamentua eta alderdi politikoak

- Ordezkeriak denak alderdi politikoaren egituretatik datoz

Oharra: Agindu inperatiboa; bere hautesleen bozeramale hutsa da politikaria, hautesleek esaten duena bozkatu behar du. Historikoki parlamentu estamantetan agindu inperatiboa zegoen.

- Parlamentuetan talde parlamentarioak sortzen dira eta talde hauek alderdi politikoetatik aldentzen dira.
- Izaera desberdina duten bi gauza dira.
 - UPyDko bakarra dago parlamentuan beraz bere partiduko alderdi parlamentarioa ezin du egin eta talde parlamentario misto batera joan behar da.*
- Talde parlamentarioa:
 - Hemengo ordezkariak ez dute alderdi politikoko pentsamenduak jarraitu behar.
 - Autonomoak bihurtu dira.
 - Talde hau sortzeko 3 ordezkari egon behar dira minimo eta hauek ezaugarri batzuk bete behar dituzte horrelako talde bat sortzeko.

4.Egitura: ganbara bakarra eta ganbara bikotasuna

Ganbara bikotasuna: Ohikoagoak dira.

- Ganbara bikotasun kontserbadorea: goi ganbarak funtzio bat betetzen zuen eta funtzio hori zen behe ganbarak hartutako erabakiei betoa ezartzeko funtzioa.
 - Kontserbadorea zergatik? eliteaz osaturiko ganbarak ziren. Behe ganbarak proposatu erabaki bat. Goi ganbarak aztertu eta erabaki egingo du.

Adib: BHn beheko ganbara ganbara komuna da (jende normala dau), goiko ganbarari Lord esaten zaio. Adib: frantzia,

- o *goi ganbara horrek kontserbadorearen aztarnak dituzte.*

- Ganbara bikotasun federala:
 - Lurralde banaketaren faktoreek baldintzatzen ditu.
 - Goi ganbarak lurralde interesen ordezkapenerako ganbarak izango dira.
 - o *Adib: Alemania, Ganbarak nortzuk osatzen dute? zeinek aukeratu ordezkariak? estatu federal bakoitzeko bat aukeratzeko dute ordezkari bezala. Berdin du handia edo txikia izan bakoitzetik bi hartzen dira.*
Alemanian ezin da legeak gainditu senatuaren baimenik gabe.
 - Alemanian ezin da legeak gainditu senatuaren baimenik gabe

Ganbara bakarra:

- Organo bakarrena betetzen direla aurretik aipatutako funtzio guztiak. Estatu zentralizatuentzat egiten da ganbara bakarrekoak.
- Ez dute estatu zentralista guztiek baina askok bai.
 - *Adib: European Danimarka, Grezia, Finlandia, Portugalek....*

5. Barne antolaketa: organoak

Legebiltzarra hainbat organoz osatuta dago, et honakoak dira bertan aurki ditzakegun organoak:

- Lehendakaria:
- Mahaia: hauek izango dira parlamentuaren egutegia betetzeaz arduratuko direnak. Parlamentuko eraikinaren mantentze lanak egiteaz ere arduratuko da, diren proposamen guztiak mahaiaren aurretik pasa beharko dira tramitatu aurretik, hau da, filtro lan bat egingo du mahaiak.
- Batzordeak: funtzio legegilea eta kontrol funtzioa betetzeko eraginkorrenak dira. Batzordeak bi taldetan bereiz ditzakegu:
 - Batzorde Iraunkorra
 - Ikerketa Batzordea
- Bozeramaleen batzordea: hau organo politikoa da, eta talde politiko guztien ordezkari banak osatzen du. *Egun, Eusko Legebiltzarrean honakoek osatzen*

dute: Joseba Egibar (EAJ), Maddalen Iriarte (EHBildu), Lander Martinez (), Jose Antonio Pastor () eta Borja Semper (PP). Organo hau mahairekin lankidetzan aritzen da, eta alderdi politikoek dauzkaten jarduerak aztertzen dituzte. Plenoen antolaketa eta gaiez arduratzen direnak ere hauek dira, eta hauekin batera gobernukide bat izaten da.

- Diputazio iraunkorra: Legebiltzarreko ohizko bilkuretatik kanpo biltzen diren taldeak dira, eta urtean bi bilkura egiten dituzte. Organo zabala da. Eta normalean ez dute funtzio legegilerik hartzen
- Talde politikoak: Legebiltzar gutiek kokatu behar dute beren burua talde politiko batean. Hauek lirateke ordezkarien ildo ideologikoak bilduko dituztenak, eta hainbat eskubide (ekimen legegilea aurrera eramatekoa) dituzte.
- Plenoa – osoko bilkura: Hau litzateke Legebiltzarreko organorik garrantzitsuena kide guztiek osatzen duten taldea baita. Bertan, garrantzia handiko eztabaida izaten dituzte, eta erabaki garrantzitsuak hartu

6. Prozesu legegilea

Proposamen bat lege bilakatzeko ze prozesu eraman behar da aurrera? Prozesu legegileaz ari garenean bi prozesu bereiz ditzakegu: arrunta eta berezia.

Arrunta **Eusko Legebiltzarreko eskema kuadernoan**

Botere betearazlea: gobernu

Ezinbesteko erakundea da, eta hainbat oinarri ditu: gobernu buruaren zuzendaritza, erantzukizun politikoa (denak daude honen menpe), kide anitzeko erakundea, elkertasuna (denak dira gainerakoek hartzen dituzten erabakien erantzule eta sail anitzekoa).

Funtzio orokorrak (edozein gobernuenak)

Gobernu funtzioa: gobernuak estatuaren politikaren erabaki nagusiak diseinatu eta abiarazi egiten ditu. Politika ildo nagusien zuzendaritza.

Funtzio betearazlea: gobernuak, administrazioaren laguntzaz, botere legegileak onarturiko arauak gauzatu behar ditu.

Funtzioak (sistema parlamentarioetan):

1. Politika nazionalaren zuzendaritza:
 - Aurrekontua eta ekonomiaren plangintza
 - Iniziatiba legislatiboa
 - Beste erakunde konstituzionalekiko harremanetan dagozkion hainbat eskuhartze: legebiltzarren deuseztatzea (botere legegilea), barkamena eskaera (botere judiziala), zenbait erakunde kideren izendapen (epaitegi konstituzionala).
 - Nazioarteko harreman guztiak gobernuaren esku geratzen dira.
2. Estatuaren administrazioaren zuzendaritza
 - Politika publikoen inplementazioa

- Administrazio antolaketa
3. Estatuaren defentsa eta ordenu publikoaren berma
- Alarma, emergentzia eta setio egoera (egoera bat, non, printzipioz ohikoak diren hainbat eskubide murrizten diren)
4. Funtzio normatiboa
- Lege proposamenak eta dekretuak (Gobernuak zuzenean onartu eta indarrean jartzen duen araua)

**Frantziak sistema semipresidentzialista bat du.*

Estatu espainiarra

Osaera

- *Presidentea*
- *Presidente-ordea(K) (balego)*
- *Ministroak*

Antolaketa

Faltoa!!!

Ministroen kontseilua

Osoko bilkura, karterarik gabeek eta estatu idazkariak ere parte har dezakete

Izaera bikoitza: erakunde politikoa eta administratiboa da

Batzorde Delegatuak (ministroen kontseiluaren organo laguntzailea)

Ministroen kontseiluak sortuak

Batzordeak presidente eta idazkaria ditu

Funtzioa: ministerioen kontseilura eramango diren gaiak errespetatu, ministerio guztiei es dagokien arazoi erantzun eta koordinazioa

Aholku eta laguntzarako erakundeak

- *Estatu idazkariak*
- *Estatu idazkarien eta idazkari-ordeen batzorde orokorra*
- *Estatu idazkariak*
- *Gabinetea*

5.GAIA: MASA-POLITIKOAREN FORMA POLITIKOAK.

Ez demokratikoak

Totalitarismoak:

Hiru totalitarismo mota bereiz genitzake; ezkerrekoa (Stalinismoa), eskuinekoa (Nazismoa) eta erlijiosoa (Talibanen erregimena)

Ezaugarriak (Linz-en eredua)

- Alderdi politiko sistema politikoak dira, eta eragile politiko bakarra dago. *Frankismoaz ari bakar koalizio baten inguruan ari gara hizketan*
- Ideologia garatua eta hertsia, hau da, ideologia zehatz eta argi bat dute.
- Mobilizazioa erregimenak dira, hau da, gizartea etengabe mobilizatuta dago egitura baten barnean. Alderdia da egitura hori, eta estatuaren egitura paralelo bat da, eta alderdiak estatuaren egitura guztiak kolonizatu egiten ditu, hau da, estatuaren botere guztia alderdiaren esku dago.
- Liderren garrantzia, liderra edo zuzendaritza taldea
- Boterearen jardueraren mugak ezin dira aurreikusi (Izu totalitarioa), hau da *Frankismo garaian oposizio kidea bazinen bazenekien zer gerta zitekeen.*
- Aldaketa erradikala dute helburu.

Hanna Arendt (autore liberala)

Menerapen politikoa guztiz berritza joko du, XX.mendean sortutako baten gisan. Gizarte harreman sarea desegituratu egiten du, eta era horretara erregimen politikoarekikoarekiko aukera guztiak ezinezko bihurtzen dira.

- Ideologia totalitarioa: egia osoz osaturikoa, eztabaida ezina (ortodoxia)
- Izuaren erabilpena gizartearen autonomia zantzu horiekin amaitzeko.
- Gizartearen antolaketarako eta mobilismorako ezinbesteko egitura, alderdi bakarra alegia.

Autoritarismoak

Autoritarismo perfektuak (Hemen kokatuko genuke Frankismoa)


- Aniztasun politiko mugatua, hau da, koalizio bat dago. Erregimen politiko hori koalizio bateko kideek sortzen dute, gizarte horretako sektore sozial nagusiko kideek hain zuzen ere. *Frankismoaren koalizioa elizak, armadak, goi burokraziak,... osatze zuten, hau da, erregimeari babes ematen ziotenek.* Koalizio horrek ez du inolako erantzukizun politikorik herriaren aurrean, erantzukizuna koaliziokideen artekoa da.
- Justifikazio ideologikoa garaian garaiko eta tokian tokiko balioetan oinarritzen da. Aberria, ordena hierarkia, modernizazioa,... *Frankismoaren erregimenak berak ez zuen inolako lerro zehatzik, balio batzuk besterik ez zituen.*
- Mobilizazio maila baxuko sistemak dira, hau da, bertan ez dugu alderdi potenterik topatuko. *Espanian Frankismoan legeztatuta zegoen alderdi bakarra Mugimendu Nazionala (erregimenak behartutako koalizio bat) zen.*

- Erregimenak ez du egitura politiko berezirik sortuko. *Txile, pinochete ez du egitura politiko sozial berria sortzen. Aukeratzen uzten dituztenak egogo dira parlamentuan*
- Boterearen pertsonalizazioa. Liderra
- Erregimenaren jardueraren mugak zehaztu gabeak dira, baina aurreikusi daitezke.

Desberdintasun nagusia hemen koaliziorik ez dagoela da, eta ezaugarri horiek beteko dituzten autoritarismoak munduan izan diren erregimen politiko hedatuena dira. Autoritarismo perfektua egoera ideala da.

Hainbat ezaugarri bete ezean totalitarismoa autoritarismo inperfektuarekin bat eginik legoke.

'Balilla': ume eta gazteen erakunde bat da, hauek desfilatzen aritzen ziren umeak ziren. Egitura hauek alderdiek sortuak dira.



Ordezkatze sistemak/sistema demokrata-liberala

Ordezkaritza

Hiritarren eta gobernarien arteko izaera egonkorreko harremana zeinaren bidez bigarrenak, hauteskunde bitarteko instituzionalaen erabilpenaz erantzukizun politikoaren menpean egonik,...

Ordezkatze sistemak

Ordezkatze sistemen teoria garaikidearen erro ideologikoak eta oinarri legitimatzaileak.

- Teoria klasikoaz ari garenean Aristotelesen lanaz ari gara. Berau ez zen Atenaseko demokrazia zuzenaren defendatzaile sutsua izan, baina bere la horietan hiru gobernuen teoria ekarri zuen, hauek hiru motatan bereiz zitezkeen, eta bakoitzaren barnean bi aukera: interes orokorraren defentsa eta interes partikularraren defentsa.

Hiru gobernu forma	Interes orokorra	Interes partikularra
Herritarrak	Politika (errepublika)	Demagogia (demokrazia)
Monokratikoa	Monarkia	Tirania
Elitea	Gutxi batzuk bakarrik aristokrazia	Oligarkia

- Tradizio Erromatar Erdi Arokoa, hauek Erromako zuzenbidearen aginduak jasotzen dituzte. Erdi Aroko legelariak zuzenbide erromatarrari helduz teoria. Subiranotasunari jarraitzen diote. Hauen ustez printzeak (governariak) agintea du herriak utzi diolako, hau da, zesio bat egin duelako. Hemen titulartasuna eta jarduera bereizten dira. Subiranotasunaren jabea herria litzateke, eta erabiltzeko eskumena printzeak du. Zesioari hainbat baldintza ezar dakizkioke.
- Tradizio Errepublikano Modernoa, monarkia eta gobernu errepublikanoaren arteko kontraposizioa planteatuko dute hauek.

Ordezkatze-sistemak / Demokraziak

Zenbait definizioen ezaugarriak eta edukiak (Vallés):

1. Botere errekurtsio politikoaren jabetza hiritar guztiena da, eta hau litzateke erregimen demokratiko baten ezaugarri nagusia. Subiranotasuna zatituta dago, eta sufragioa inalienablea da, hau da, ezin da berdindu. (Rousseau). Gaur egungo sistema politikoaren praktikan dagoen elementu garrantzitsu bat sufragio eskubidea da unibertsala da, zergatik? Errekurtsio politikoak hiritarrenak direlako, denok errekurtsioen jabe bagara, inork ezin digu ukatu errekurtsioen erabilpena, eta hau emateko modu bat sufragioa da, beraz hau ezin da ezabatu. Subiranotasuna zatituta (denok gara subiranotasunaren zati baten jabe) badago, agindu inperatiboaren forma bat egon beharko litzateke. Agindu inperatiboak: ordezkaria bozeramale soil bat izango litzateke, ordezkariak soilik esan dezakete bere botoemaileak eskatzen diotena. Ordezkariak ez du zer bozkatuko duen eta zer ez erabakitzeko eskubiderik. *Gaur egun ez dago praktika. Gaur egun, ordezkaria libre da erabakitzeko.*
2. Gutxiengoaren eskubideen babesa, hau da, gutxiengoak ere ukaezinak diren eskubideak dauzka. Eskubide zibil eta politikoak (elkartzeko eta antolaketaarako askatasuna, pentsaera eta adierazpen askatasuna, sufragio eskubidea,

hautagai izateko askatasuna, informazio askatasuna,...) besterezinak dira, hau da, eskubide hauek ezin dizkizu inork kendu. (J. Mill)

3. Gobernariak hiritarrek hartutako erabakiaz izendatzen dira, hau da, gobernuak hartutako erabakiez baliatzen dira. Hauteskunde lehiakorak (Schumpeter)

*Herritarren nahia neurtzeko modua: nola sortu proposamenak, nola helarazi/komunikatu, nola hartzen den erabakia.

4. Helburua berdintasuna da, berdintasun politikoa ez ezik sozio-ekonomikoa ere bada. (Marx, Macpherson)

5. Hiritarren nahia bete behar da. 'herriak, herriarentzat eta herriarengatik' (Barber)

1-2-3: Demokrazia formala: prozedurak, bitatekoak definitzen dituen ordezkatzeko sistema.

Arauek argiak eta berdinak dira.

Nola zehatz daitezke edukiak?

DEFINIZIO ENPIRIKOA (Formala)

6. Alderdi bat baino gehiago. Eskubide zibil eta politikoez ari gara.
7. Hauteskunde lehiakorak. Hauek baldintza batzuk dituzte: epekakoak dira, sufragio unibertsa da, sufragio aktibo eta pasiboa, hau da, aktibo (zuk bozkatzen duzu), pasibo (zu bozkatzen zaituzte)
8. Hedabide alternatiboak. Eskubide zibil eta politikoez ari gara.
9. Eraitzen araberako ordezkariak zein gobernu erakundeak

Klaseko galdera, nola neurtzen da zenbateraino betetzen diren herritarren nahiak? Oso zaila da kalkulatzeko.

4-5: Demokrazia substantiboa: helburuetara bideraturiko demokrazia.


Leiren apuntetatik hartutakoa!!

	Ezaugarriak	Gauzatze gutxienekoa	Gauzatze ertaina	Gauzatze maximoa
HERRI SUBIRANOTASUNA	PARTEHARTZEA KONTROL BITARTEKOAK	DEMOKRAZIA ORDEZKATZAILEA	DEMOKRAZIA PLEBISZITARIOA AURREKONTUETAN PARTE HARTZEA	DEMOKRAZIA PARTE HARTZAILEA
ESKUBIDEAK eta ASKATASUNAK BALIO DEMOKRATIKOAK	ESKUBIDE BESTEREZINAK GEHIENGOEN eta GUTXIENGOEN	ESKUBIDE ZIBILAK DISKRIMINAZIORIK EZ	ESKUBIDE SOZIALAK TOLERANTZIA	

	ARTEKO HARREMANA			
DEMOKRAZIA EKONOMIKOA	ONDASUNEN BANAKETA eta ERABAKI EKONOMIKOAK	LAISSEZ FAIRE (utzi egiten, liberalismo ekonomikoaren leloa)	ONGIZTE ESTATU AUKERA BERDINTASUNA	EMAITZE BERDINTASUNA

Demokraziak bete gabeko promesak (Bobbio)

Taldeak dira, eta ez gizabanakoak, subjektu politikoak (neokorporatibismoa eta alderdikrazia)



- Ondorioz, taldeetan agindu inperatiboa nagusitzen da.
- Demokraziak ez du berrosatu gobernrien eta gobernatuen arteko identifikazioa, politikaren profesionaln elitea baizik
- Demokrazia ez da hedatu komunitatean eragin handiko erabakiak hartzen diren esparruetara, ekonomia, estatu arrazoia, administrazioa,...
- Demokraziak ez du, guztiz, botere errekurso politiko guneen opakutasuna argitu. (Estatuaren sekretuak, estatu arrazoia, 'estolderia'...)
- Demokraziak ez du handitu arazo publikoekiko interesa, apata politikoa, eta interes pribatuaren defentsa dira garatu direnak.
- Demokraziak ez ditu politikare eta diruaren arteko harreman iluna, politikaren eta habideen arteko lotura estua hautsi.